LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# 2019 OTSAILA - AUZO BATZARRAK
## ASAMBLEAS MUNICIPALES - FEBRERO 2019
## NEGUA - INVIERNO

<table>
<tr><td>Auzoa<br>Barrio</td><td colspan="2">Larrazabal</td></tr>
<tr><td>Data Fecha<br>Ordutegia Horario<br>Lekua Lugar</td><td colspan="2">2019-02-20<br>19:02 –20:29<br>Hitzaldietarako udal gela Sala de Conferencias Municipal</td></tr>
<tr><td>Bertaratutakoak<br>Asistencia</td><td colspan="2">*Ordezkaritza politikoa representación política<br><br>- Alkate-udalburua Alcalde-presidente, Jon Iñaki Urkixo Orueta<br><br>Ordezkariak Representantes:<br>- EH Bildu, Jon Ander Altube<br>- EH Bildu, Amets Meatza Castañares<br>- EAJ/PNV, Eva Marquinez Blanco<br><br>*Udal teknikariak técnicas/os municipales<br>- Jarduneko Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloko burua Jefe del Área Obras, Servicio, Mantenimiento y Medio Rural en funciones, Asier Goikuria<br>- Udal Arkitektoa Arquitecta municipal, Almudena Fernández<br>- Jarduneko Obra arduraduna Encargado de Obras en funciones, Joseba Solaun<br><br>*Idazkaria secretaria - Dinamizatzailea moderadora<br>- Lander Martínez Ibarrola<br><br>*Auzokideak vecinas/os<br>-guztira/ total 17<br>-neskak 9<br>-mutilak 8<br><br>*Kazetariak periodistas<br>- Marta Peciña. El Correo</td></tr>
<tr><td>Gai-zerrenda<br>Orden del día</td><td colspan="2">1_ Aurkezpena presentación<br>2_ Gai orokorrak cuestiones generales<br>3_ Auzoko gaiak cuestiones del barrio<br>4_ Galderak Preguntas</td></tr>
<tr><td></td><td>Euskaraz</td><td>Gaztelaniaz</td></tr>
<tr><td>Edukia<br>Contenido</td><td>1_ Aurkezpena</td><td>1_Presentación</td></tr>
</table>

| | | |
|---|---|---|
| | Alkate-udalburuak bertaratutakoak aurkeztu ditu, hala mahaiko ordezkariak, nola langile teknikariak, eta laburki azaldu du nola bideratuko den saioa. | Alcalde presenta a los asistentes, tanto los representantes en la mesa como el personal técnico, y hace una breve explicación de cómo va ir dirigida la sesión. |
| | **2_ Gai orokorrak**<br><br>GIZARTE POLITIKAK<br><br>-Pertsona zaharrentzako laguntzari dagokionez, itxaronzerrenda murriztu da eta 155 ke-detektore gehiago instalatu dira, batez ere, 80 urtetik gorako emakumeen etxeetan, haiek baitira egoera ahulenean daudenak.<br>-Enplegu-programak. 28 kontratazio egin dira enplegu programen barruan, lanaldi osoan jarduteko.<br><br>HAZ<br><br>-Lehenengo aldiz zerbitzua dago egun osoan. Astelehen eta ostegunetan 08:00etatik 19:00etara etengabe. Hasteko, urtebetez izango da, herritarrek nola hartzen duten ikusteko.<br>-Ideia da HAZ leihatila bakar bihurtzea.<br><br>ANTZOKIA<br><br>-Laudion aurreikusita dauden proiektu kulturaletako bat da. Une honetan ideien lehiaketa dago martxan, martxoaren 4a arte. Gero, maiatzaren bukaeran jakingo dugu zein den Altzarrateko antzokirako azken proiektua.<br>336.501€<br><br>LAMUZA PARKEA<br><br>-Berretsi egin da bi eraikin birgaitu direla Aldundiaren finantzazioarekin.<br>-Lizitazioa martxan dago eta obrak udan hasiko dira. Kultura Etxe berriaren lehenengo fasea egikarituko da.<br><br>KIROL INSTALAZIOAK | 2_ Cuestiones generales<br><br>POLITICAS SOCIALES<br><br>-En la ayuda a las personas mayores, se ha reducido la lista de espera, se han instalado 155 detectores de humo más, sobre todo a mujeres de más de 80 años que viven solas ya que son más vulnerables.<br>-Programas de empleo. Se han hecho 28 contrataciones, a jornada completa dentro de programas de empleo.<br><br>HAZ/SAC<br><br>-Por primera vez se cuenta con el servicio durante todo el día. Lunes y jueves en horario continuado 08:00-19:00. En principio será durante un año para ver la respuesta de la ciudadanía.<br>-La idea es convertir al SAC en una ventanilla única.<br><br>ANTZOKIA<br><br>-Es uno de los proyectos culturales previstos en Llodio. En este momento se está convocando el concurso de ideas, hasta el 4 de marzo. Luego para finales de mayo se sabrá cuál es el proyecto final para el Antzokia en Altzarrate.<br>336.501€<br><br>LAMUZA PARKEA<br><br>-Confirmar que se han rehabilitado dos edificios con financiación foral.<br>-La licitación está en marcha la obra empezará en verano.. Se ejecutará la primera fase de la nueva Kultur Etxea.<br><br>INSTALACIONES DEPORTIVAS |

| | | |
|---|---|---|
| | - Granja kiroldegia. Oinezkoen irisgarritasunerako proiektua idazketa-fasean dago. Gero, diru-laguntza eskatuko zaio Aldundiari.<br><br>- Gardea. Bi padel pista berri instalatu dira; asko erabili eta erabiltzen dira. Arrakasta handia.<br><br>Hockey kantxa. Kantxako argiztapena aldatu da. Inbertsioa: 55.000€ BEZ barne.<br><br>Tenis kantxako estalkia. Kantxa estaltzeko proiektua idazten ari dira.<br><br>Calistenia parkea. Latiorro. Berehala hasiko dira obrak.<br><br>Aretako frontoia. Berotze-instalazioa aldatuko da.<br><br>Ellakuri. Belar naturala artifizialarekin ordeztu da. Aldagelak egin dira.<br><br>San Martin. Aldagelak eta instalazio guztiak eraberritzeko proiektua martxan da. | - Polideportivo la Granja. Se está redactando el proyecto de accesibilidad peatonal. Luego, se planteará la subvención a la Diputación.<br><br>- Gardea. Se instalaron dos pistas nuevas de pádel, han tenido y tienen mucho uso. Todo un éxito.<br><br>La cancha de Hockey. Cambio en la iluminación del campo. Inversión: 55.000€ IVA incl.<br><br>La cubierta de la cancha de tenis. Se está redactando el proyecto para poder cubrirla.<br><br>Parque de Calistenia. Latiorro. El inicio de las obras es inminente.<br><br>Frontón de Areta. Cambio en la instalación de calefacción.<br><br>Ellakuri. Se ha sustituido la hierba natural por hierba artificial. Se han habilitado los vestuarios.<br><br>San Martín. Se ha iniciado el proyecto de reforma de los vestuarios, y de todas las instalaciones. |
| | **3_ Auzoko gaiak**<br><br>**Amets Meatza.**<br><br>- **Asfaltatzeak eta zoladurak:** Egin zen lehenengo gauza Barbarako bihurgunea izan zen. Larrazabalen egin diren gainerako asfaltatze ia guztiak landa-eremuan izan dira (Larragibel, Orueta, Astobitza, Lekandazar). Egin den azkeneko gauza izan da Larragibel eta Lekandazarreko areko sakonak betetzea.<br><br>- **Seinaleak:** Zumalakarregi-Baia-Landaluze bidegurutzean zegoen seinalea, 7 tona eta erditik gorako ibilgailuei igarotzea eragozten ziena kendu da eta berdin bat utzi da Markuartuko bidegurutzean. | 3_ Cuestiones del barrio<br><br>**Amets Meatza:**<br><br>**- Asfaltados y pavimentos:** lo primero que se hizo fue la curva de Barbara. El resto de asfaltos que se han hecho en Larrazabal han sido prácticamente todos en la zona rural (de Larragibel a Orueta, Astobitza, Lekandazar). Lo último que se ha hecho ha sido rellenar profundas cunetas en Larragibel y Lekandazar.<br><br>- **Señalización**: la señal que había en el cruce de Zumalakarregi-Baia-Landaluze que prohibía el acceso a vehículos de 7 toneladas y media ha sido retirada y se ha mantenido otra igual en el cruce de |

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

| | | |
|---|---|---|
| | Gainera, San Joan igaro eta gero 10 tonako ibilgailuei igarotzea eragozteko seinale bat ipini da eta eremua zabaldu da kamioiek buelta emateko. Hori guztia pentsatu da GPSaren eraginez gorantz doazen kamioilarientzat, handik ez doazelako inora. Eta helburua da GPSak bidali dituela irtenbiderik gabeko bide batera. Hori dela eta, horrelako kamioi astunekin bide horietatik igaro behar diren auzokideek baimena eskatu beharko dute, eta Udalak emango die.<br><br>- Toki On jatetxearen ondoan euri-urak biltzeko arazoa zegoen, eraikineko erreteneko ur guztia ortu horren ondoko lurretara isurtzeaz gain, tabernako sarbidera ere sartzen zelako. Sareta garbitu da eta kutxatila berria egin, ur hori guztia isurtzeko.<br><br>- **Landaluzeko San Joan jaietako batzordearen eskaera**: San Joan iturriaren ondoan, putzu handiak egiten direnez, tutu bat ipini da ura zelaira drainatzeko eta puztu horiek eratzea eragozteko. | Markuartu. Además, pasando San Juan se ha colocado una señal que prohíbe el acceso a vehículos de 10 toneladas, y se ha ampliado esa zona para que puedan dar la vuelta esos camiones. Todo ello está pensado para aquellos camioneros/as que el GPS les manda ir arriba y por ahí arriba no llegan a ningún sitio. El objetivo es que se den cuenta que el GPS les manda a un lugar donde no van a tener salida. Por ello, aquellos vecinos que en un momento dado tengan que hacer uso de esos caminos con camiones de ese tonelaje tendrán que pedir permiso y el Ayuntamiento lo concederá.<br><br>- Junto al Toki On teníamos un problema de recogida de aguas pluviales, ya que todas las aguas de ese edificio del canalón vertían tanto al terreno que está pegando a esta huerta, como también al acceso del bar. Se ha ampliado la rejilla y se ha hecho una nueva arqueta, canalizando todas esas aguas.<br><br>- **Petición de la Comisión de Fiestas de Landaluze, de San Juan**: en la zona de la fuente de San Juan, dado que se hacían muchos charcos, se ha colocado un tubo al río para drenar la campa e intentar evitar esos charcos. |
| **Galderak**<br>Preguntas | **1.- Herritar** batek adierazi du Landaluzeko plazan (Landaluze, 6) bi akademia daudela eta jendea esertzeko banku bakarra. Eskatu du gutxienez beste banku bat ipintzeko.<br><br>**Jon Ander Altubek** erantzun du bankuak udal biltegian daudela eta ipini daitezkeela.<br><br>**2.- Herritar** batek, esan du jada ez dagoela Landaluzeko 10.eko zebrabidearen parean zegoen edukiontzia, olio zaharra uztekoa. Beste herritar batek erantsi du esan diotela 15 egun beharko dituztela ekartzeko eta txarto kokatua zegoela eta beherago ipini | **1.- Vecino** comenta que en la plaza de Landaluze (Landaluze, 6) hay dos academias y solo un banco para que la gente se pueda sentar. Solicita que al menos se coloquen dos bancos más.<br><br>**Jon Ander Altube** responde, los bancos están en el almacén municipal y se pueden colocar.<br><br>**2.- Vecino** comenta, también, que ha desaparecido el contenedor para reciclar aceites que estaba colocado junto al paso de cebra en Landaluze, 10. Otra vecina añade que le han comentado que van a tardar 15 días en traerlo y que estaba mal |

| | | |
|---|---|---|
| | nahi zutela.<br><br>**Alkate-udalburuak** erantzun dio edukiontzien kontua Aiarako Kuadrillari dagokiola. Ez digute esan zergatik kendu duten. Kuadrillan galdetuko du.<br><br>**Asier Goikuriak** adierazi du herritar batzuek eskatu zutela kokalekua aldatzea, zebrabidearen ondoan egonda, ikustea eragozten zuelako. Kuadrillari eskatu zitzaion metro eta erdi beherago ipintzeko, baina ez kentzeko. Edukiontzia ainguratua dagoenez, haiek mugitu behar zuten.<br><br>**3.-Herritar** batek aipatu du Zumalakarregitik Larrazabalera doan zatian, Landaluzen zeharrekoan, ia ez direla ikusten zebrabideak, margo gutxi dutela.<br><br>**Alkate-udalburuak** erantzun du jaso duela eskaera, handik igaro daitezen eta zereginen artean jaso dezaten, ahal dutenean egiteko.<br><br>**4.- Herritar** batek esan du Landaluzeko 36.era ez direla anbulantziak igotzen, igoera zuloz beteta dagoelako eta, beraz, errepidean geratzen direla. Erantsi du jende zaharra bizi dela han eta erorikoak maiz gertatzen direla.<br><br>**5.- Herritar** batek esan du Zumeltza oso egoera txarrean dagoela eta Barbarako bihurguneko zebrabidea oso altu dagoela.<br><br>**Jon Ander Altubek** azaldu du 2012az geroztik basabideetan 600.000 euro inguru inbertitu direla. Udalak ezin ditu denak egin, lehentasunak ipini behar dira. Aurten basabideetan egiteko inbertsioen zerrenda ez dago itxita, lehentasunen artean sartzen bada egin daiteke. Erantsi du auzokideek eskatu dutela erdiguneko zonaldeak gehiago asfaltatzeko, jende gehiago bizi delako. Oreka bilatzea izan da asmoa. | ubicado, y que lo querían poner más abajo.<br><br>**Alcalde** contesta, El tema de los contenedores corresponde a la Cuadrilla de Ayala. No nos han indicado por qué lo han quitado. Preguntaré en la Cuadrilla.<br><br>**Asier Goikuria** comenta que se solicitó por parte de unos vecinos reubicarlo porque estaba justo en el paso de cebra y quitaba visibilidad. Se solicitó a la Cuadrilla moverlo metro y medio más abajo pero no quitarlo. Al ser un contenedor que está anclado lo tenían que mover ellos.<br><br>**3.-Vecino** comenta que en la parte de Zumalakarregi para Larrazabal, por Landaluze, los pasos de cebra casi no se ven, tienen poca pintura.<br><br>**Alcalde** responde, toma nota para que pasen y lo puedan meter dentro de las órdenes de trabajo para cuando se pueda hacer.<br><br>**4.- Vecina** comenta que en Landaluze, 36 no suben las ambulancias, está la subida llena de baches por lo que se quedan en la carretera. Añade que vive gente mayor y están habiendo muchas caídas.<br><br>**5.- Vecino** comenta que la carretera de Zumeltza está en muy malas condiciones y que el paso de peatones de la curva de Bárbara está muy alto.<br><br>**Jon Ander Altube** explica, en los caminos rurales desde el año 2012 se han invertido en torno a 600.000 euros. El Ayuntamiento no tiene capacidad para hacer todos, se intenta priorizar. Las relaciones de inversiones para hacer este año en caminos rurales no está cerrada, si entra dentro de las prioridades se puede acometer. Añade que los vecinos reclaman que se asfalte en zonas más céntricas porque vive más gente. Se intenta buscar un equilibrio. |

| | | |
|---|---|---|
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du Barbarako bihurguneko zebrabidea ibilgailuen abiadura murrizteko altxatu zela. | **Jon Ander Altube** contesta que el badén de la curva de Barbara se realizó para reducir la velocidad de los vehículos. |
| | **6.- Herritar** batek adierazi du euria egiten duenean beheko postontzietako gutunak bustitzen direla. | **6.- Vecino** comenta, también, que en los buzones cuando llueve se mojan las cartas de abajo. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du postontzien gaia aztertuko dutela. | **Jon Ander Altube** responde que miraremos el tema de los buzones. |
| | **7.- Herritar** batek aipatu du Basozabaletik behera joanda dagoen bihurgunea hondoratua dagoela, eta ez dela konpondu. | **7.- Vecino** comenta que la curva que está más debajo de Basozabal está hundida, no ha habido un parcheo. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du Zumeltzan egindakoa egingo dutela han ere. Alegia, lehentasuna den ala ez aztertuko da. | **Jon Ander Altube** responde que se procederá de la misma manera que en Zumeltza. Es decir, se evaluará si es prioridad o no. |
| | **8.- Herritar** batek esan du 10 tonen seinalea sarreran egon beharko lukeela, GPSarekin doazen kamioiak goraino joan behar ez izateko. Erantsi du goian kamioi handi batek ez duela buelta ematen. | **8.- Vecino** comenta, también, que la señal de las 10 toneladas debería estar en la entrada para que los camiones que vayan a ir con el GPS no tengan que subir arriba. Añade que arriba un camión largo no da la vuelta. |
| | **Amets Meatzak eta Asier Goikuriak** erantzun dute eremu laua zabaldu dela kamioi handiek buelta eman ahal izateko. | **Amets Meatza y Asier Goikuria** responden que se ha ampliado la explanada para que puedan dar la vuelta esos camiones. |
| | **Jon Ander Altubek** erantsi du helburua ez dela pisu hori duten ibilgailuei igarotzea debekatzea. Kontua da benetan galduta daudenak ez igarotzea. | **Jon Ander Altube** añade que el objetivo no es prohibir que circulen vehículos de ese tonelaje. Se trata de prohibir que circulen aquellos que realmente están perdidos. |
| | **Joseba Solaunek** adierazi du Eskuza harategiaren parean seinale bat ipiniko dela Eroskitik datozen ibilgailuek ikus dezaten Okondora doan errepidea hurrengo bidegurutzean hartzen dela, eta ez dela Landaluzeko igoera. Erabaki zen bidegurutzean zegoen seinalea kentzea hara butano kamioiak sartzen direlako eta orduan baimena eskatzen ibili beharko liratekeelako sartzen zaren bakoitzean. | **Joseba Solaun** comenta que se va a colocar una señal a la altura de la carnicería Eskuza para que los vehículos según vienen de Eroski observen que la carretera que va a Okondo es el siguiente desvío, y no la subida por Landaluze. Se decidió quitar la señal que estaba en el cruce porque ahí entran camiones del butano a repartir y entonces tendrían que estar pidiendo permiso cada vez que entran. |

| | | |
|---|---|---|
| | **Asier Goikuriak** erantsi du 10 tona baino gehiagoko kamioiak oso gutxi izaten direla, baso-mozketetarako edo basetxera batera pentsua eramateko, eta horiei ez zaiela igarotzea eragotziko. | **Asier Goikuria** añade que los vehículos superiores a 10 toneladas son camiones muy puntuales los que tienen que pasar, para una saca o para un caserío para suministro de piensos, y que a esos vehículos no se les va a impedir el acceso. |
| | **9.- Herritar** batek galdetu du jabeak mendian baso mozketak egitera badoaz 10 tonatik gorako kamioiekin zer gertatzen den. | **9.- Vecino** pregunta si los propietarios van a sacar un monte qué sucede con el límite de las 10 toneladas. |
| | **Amets Meatzak** erantzun du mendietan mozketak egiten beti eskatu behar dela baimena eta Udalak beti ematen duela. | **Amets Meatza** responde que para la saca de montes siempre hay que pedir autorización y el Ayuntamiento se la va a conceder. |
| | **10.- Herritar** batek galdetu du zergatik ez den garbitzen inoiz errekaren inguruko zelaia, Landaluzeko 17.ean. | **10.- Vecina** pregunta por qué no se limpia nunca la campa alrededor del río, en Landaluze, 17. |
| | **Alkate-udalburuak** erantzun du errekaren bazterrean garbitzeko Udalak baimena eskatu behar diola Eusko Jaurlaritzari, zehazki URA Agentziari. Udalak ez du eskumenik erreka-ibaietako ezer ukitzeko. Dena den, errekerimendua egin daiteke mendia garbitu dezaten. Zelaia pribatua da, eta egikaritze-agindu bat helarazi zitzaion jabeari garbitu zezan. | **Alcalde** contesta que en el entorno del arroyo el Ayuntamiento tiene que pedir permiso a Gobierno Vasco, a la Agencia Vasca del Agua (URA). El Ayuntamiento no tiene competencias para tocar nada del río. Podemos hacer un requerimiento para que limpien el monte. La campa es privada, se dictó una orden de ejecución al propietario para que limpiase. |
| | **Jon Ander Altubek** erantsi du partikular askok ez dutela egikaritze-agindua bete nahi, aitzakiatzat jarrita etekin ekonomikoa ateratzen ez diotela han dutenari. Hala ere, Udalak badu isunak jartzea, eta normalean jabeak horri erantzun egiten dio.<br>Gainera, ez dago erreka-ibaien gaineko eskumenik txikiena ere duen udalik, ez bada hondakinak kentzekoa, baina hori egitea ere zaila da landareak ukitu gabe. Udalak egin dezakeen bakarra da sasiak kentzea, landareak kentzea URA Agentziak xedatutako terminoetan. Udalak Eusko Jaurlaritzari isun bat ordaindu berri dio ibaitik sasi gehiegi kentzeagatik. | **Jon Ander Altube** añade que muchos particulares se resisten a cumplir la orden de ejecución alegando que no le sacan una rentabilidad económica a lo que tienen ahí. Sin embargo, el Ayuntamiento puede imponer una serie de multas, y normalmente el propietario suele responder a eso.<br>Además, ningún Ayuntamiento tiene la más mínima competencia en ningún cauce, salvo retirar los residuos, y la basura difícilmente la puedes retirar sin intervenir en la vegetación. El Ayuntamiento solo puede desbrozar, retirar vegetación en los términos que autorice URA. El Ayuntamiento acaba de pagar una multa a Gobierno Vasco por limpiar demasiada maleza en el río. |

| | | |
|---|---|---|
| | **11.-Herritar** batek galdetu du nori dagokion konpontzea Landaluzeko 17 eta 19. zenbakien eta 21 eta 23.en artean dauden plazatxoak garbitzea. | **11.-Vecina** pregunta a ver a quién corresponde reparar el espacio de las dos plazoletas que hay entre Landaluze, 17 y 19 y Landaluze, 21 y 23. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du espazio hori garajeen estalkiena dela, beraz, jabeen erkidegoena eta garajeena dela ardura. Hala ere, erabilera publikoa du. Udalak ezin du konpondu titulartasun pribatua duen ezer. Hala ere, laguntzeko moduak daude. Esaterako, osoko bilkuran erabaki daiteke ia zerga guztiak indargabetzea obra horri dagozkion eraikuntza-zergak, materiala laga daiteke etab. Salbuespenak lirateke, printzipioz, hori ere ezin delako egin. | **Jon Ander Altube** contesta que ese espacio es las cubiertas de los garajes, y por lo tanto son las Comunidades y los garajes los propietarios. Sin embargo, su uso es público. El Ayuntamiento no puede arreglar un problema que es de titularidad privada. A pesar de ello, existen formas de colaborar. Por ejemplo, un acuerdo en Pleno por el que prácticamente se perdonan todos los impuestos de construcción correspondientes a esa obra, cediendo material, etc. Serían excepciones porque en principio no se puede hacer ni eso. |
| | **12.- Herritar** batek esan du auto asko mugitzen dela plazatxo horietan.<br>**Jon Ander Altubek** erantzun dio erabilera publikoa dela eta edonor sar daitekeela. | **12.- Vecina** comenta que hay mucho movimiento de coches en esas plazoletas.<br>**Jon Ander Altube** responde que el uso es público y puede entrar cualquiera. |
| | **13.- Herritar** batek esan du Larrazabalen akazia askok inausketa behar dutela, haize gogor dabilenean adarrak edonon erori daitezkeelako. | **13.- Vecino** comenta que hay muchas acacias que necesitan ser podadas en Larrazabal, puesto que con viento fuerte las ramas van a caer en cualquier parte. |
| | **14.- Herritar** batek adierazi du ibai bazterreko ibilbidea ere oso zikin dagoela eta hodi biltzailetik kirats gogorrak ateratzen direla. | **14.- Vecino** comenta, también, que el paseo de la orilla del río está muy sucio y que el colector genera en verano unos olores muy fuertes. |
| | **Alkate-udalburuak** erantzun du hodi biltzailearen kokapena aldatu beharko dela eta Aldaikoerrekan 2015ean egindakoa bezalako obra bat egin beharko dela. Hodi biltzailea errekaren ibilgutik atera behar da. | **Alcalde** responde que el colector habrá que cambiarlo de situación y hacer una obra como la que se hizo con el Aldaikorreka en el verano de 2015. Hay que sacar el colector del cauce. |
| | **15.- Herritar** batek esan du Larrazabal auzoan arratoi asko dagoela. | **15.- Vecina** comenta que Larrazabal es un barrio en el que hay muchísimas ratas. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du arratoi ugalgune bat dagoela uste denean Udalari jakinarazi behar zaiola. Udalak kontratua | **Jon Ander Altube** responde que cuando se crea que hay un foco de ratas se llame al Ayuntamiento. El Ayuntamiento tiene un |

| | | |
|---|---|---|
| | du arratoiak kentzeko enpresa batekin, eta astearterο herriko zonalde batean aritzen dira. Erantsi du astearteetan, aste osoan jasotako abisu guztiak jasotzen direnean, dena delako tokira joaten dira eta arratoiak kentzeko prozedura bideratzen da pozoia oso modu zehatzean ipinita, pertsonak edo txakurrak ez pozoitzeko. | contrato con una empresa desratizadora, y todos los martes se desratiza una zona del pueblo. Añade que los martes, cuando se recogen todos los avisos que haya habido en el espacio de una semana, se acude al lugar y se procede a la desratización colocando veneno de manera muy especial para evitar envenenamiento de personas y perros. |
| | **16.- Herritar** batek esan du Markuartuko errepidea arriskutsua eta estua dela, Okondo Laudioko erdigunearekin lotzen badu ere. Erantsi du errepidea egokituta, trafikoa kenduko litzaiokeela eta semaforoetako eta Okondorako igoeran dauden ikastetxeetako arazoak konponduko liratekeela. Gainera, iradoki du Egiako zelai pribatuaren aldea lotzea Eroskiko biribilgunearekin, tunel baten bidez, eta ordezko aukera gisa Barbaratik Arrañorako bidegurutzea eta Ellakuri lotzea.<br>**Jon Ander Altubek** erantzun du Udalak Aldundiari iradoki diezaiokeela, errepide Sailari. Gehitu du Aldundiarentzat Markuartuko errepidea ez dela inongo lehentasunik izan azken urteotan, hain ustez, Okondorekin komunikatzeko bigarren mailako bidea delako eta lehen mailakoa lehenetsi duelako, Garate mendatean zeharrekoa. | **16.- Vecino** comenta que la carretera de Markuartu es peligrosa y estrecha, siendo una carretera que une con el centro de Okondo. Añade que adecuando la carretera, le quitaría tráfico y solucionaría problemas que surgen entre semáforos y colegios a la subida a Okondo por la parte de Ugarte. Además, sugiere unir por la parte de la campa privada de Egia con la rotonda de Eroski mediante un túnel, y como alternativa conexionar el cruce de Bárbara a Arraño y Ellakuri.<br>**Jon Ander Altube** contesta que el Ayuntamiento puede sugerírselo a Diputación, al Departamento de Carreteras. Añade que para Diputación estos últimos años la carretera de Markuartu nunca ha estado entre sus prioridades porque considera que es una vía secundaria que comunica con Okondo y prioriza la principal, el acceso por el puerto de Garate. |
| | **Alkate-udalburuak** erantzun du Okondora Markuartutik joateko bidea laburragoa dela eta arazoari heldu behar zaiola, beraz, prest agertu da Aldundiarekin harremanak hasteko, konponbide posibleak aztertzen hasteko. | **Alcalde** responde que la vía de acceso a Okondo por Markuartu es más corta y que es necesario abordar el problema, por lo que se muestra dispuesto a iniciar contactos con la Diputación para que empiecen a mirar posibles soluciones. |
| | **17.- Herritar** batek zehaztu du ez lukeela Barbarako bihurgunetik inongo igarobide altxaturik kenduko, asteburuetan gazte asko ziztu bizian ibiltzen direlako handik. | **17.- Vecina** puntualiza que no quitaría ningún badén de la curva de Barbara, puesto que los fines de semana hay jóvenes que circulan a alta velocidad. |
| | **18.- Herritar** batek adierazi duenez, Udaltzaingoak ez du irizpide bera aplikatzen isunak jartzeari dagokionez, | **18.- Vecina** comenta, también, que la Policía Municipal no sigue el mismo criterio a la hora de multar, puesto que |

| | | |
|---|---|---|
| | garaiaren arabera isunak ipintzen dituztelako ala ez dituztelako ipintzen. | dependiendo de la época multan o dejan de multar. |
| | **Alkate-udalburuak** erantzun du ez dizkiela jarraibideak ematen isunak jartzeko edo ez jartzeko. Udaltzainen erabakia da. Gehitu du isuna ipini duen udaltzain berak kendu behar duela isuna. Bukatu du esanez horrelako arazorik izanez gero, harengana joateko, hitzordua eskatzeko. | **Alcalde** responde que desde Alcaldía no se les da instrucciones de que tengan que multar o no. Es decisión de Policía Municipal. Añade que para quitar una multa tiene que ser el mismo agente que ha puesto la multa quién la quite. Finaliza diciendo que en caso de algún problema en ese sentido, se acuda donde él, se solicite cita. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du araua beti dela berbera, baina interpretatzeko modua pertsonaren araberako dela. | **Jon Ander Altube** contesta que la norma siempre es la misma pero que la manera de interpretarla cambia en función de la persona. |
| | **19.- Herritar** batek galdetu du zer egin behar den isun bat kentzeko. | **19.- Vecina** pregunta los pasos a seguir para quitar una multa. |
| | **Alkate-udalburuak** erantzun du idatzi bat aurkeztu behar dela, zuzenean heltzen zaiola udaltzainburuari eta txosten bat egiten duela motibatzeko isuna kendu daitekeen ala ez. | **Alcalde** responde que el escrito presentado por una persona argumentando razones para quitar la multa, va directamente al Jefe de la Policía Municipal y realiza un informe motivando si se le puede quitar la multa o no. |
| | **20.- Herritar** batek esan du Landaluzeko 19.eko atarian, errepide nagusira ateratzeko bihurgunean, autoek han aparkatzen dutenez, ezin da buelta eman. Ataritik bihurgune osoan zehar joan behar zara atzeraka. Galdetu du ez ote litzatekeen posible eremu bat prestatzea atzeraka joateko eta izkinan buelta emateko. | **20.- Vecino** comenta que en el portal de Landaluze, 19, en la curva para salir a la carretera general, debido a que aparcan coches si tienes que dar la vuelta no puedes darla. Tienes que ir marcha atrás desde el portal toda la curva para salir. Pregunta si no sería posible habilitar una zona para poder dar marcha atrás y dar la vuelta en la esquina. |
| | **Jon Ander Altubek** erantzun du espazio hori prestatzeko aukera aztertu beharko dela. | **Jon Ander Altube** contesta que se deberá estudiar la posibilidad de reservar ese espacio. |
| | **21.- Herritar** batek galdetu du Argitsu ondoan dagoen zatia asfaltatu behar dela. Galdetu du lorategia pribatua ote den. | **21.- Vecina** pregunta si sería posible asfaltar el trozo de al lado de Argitsu. Pregunta también si el jardín es privado. |
| | **Alkate-udalburuak eta Jon Ander Altubek** erantzun dute zati publiko bat dagoela eta beste alde pribatu bat. | **Alcalde y Jon Ander Altube** contestan que hay una parte pública y otra parte privada en esa zona. |

| | | |
|---|---|---|